

Gazteek laugarren urtez *Batera* deialdiaren bidez kultur proiektuak gauzatzeko aukera izango dute

Batera, kultur proiektuak elkarrekin dirulaguntzaren laugarren deialdia abian jarri du Oihaneder Euskararen Etxeak. Gazteen artean euskaraz garatuko diren kultur proiektuak sustatzea du helburu deialdi honek. Antolatzaileek crowdfunding egitasmo bat martxan jartzen laguntzeaz gain, 2.000 €-ko ekarpena egingo diete deialdian aukeratutako 3 proiekturi. *Batera* deialdiak Laboral Kutxa eta Vital Fundazioaren babesia izango du. Gauekoak aisialdi programarekin eta Itsulapikoa.eus plataformarekin elkarlanean antolatuko da. Proposamenak aurkezteko epea urriaren 21etik abenduaren 21era egongo da zabalik.

(GASTEIZ, 2021-10-21) Laugarren urtez Oihaneder Euskararen Etxeak ***Batera, kultur proiektuak elkarrekin*** dirulaguntza deialdia martxan jarri du. **Euskal Herriko 16-30 urte bitarteko edozein gazte euskalduni** zuzendutako deialdia da, eta gazteen artean euskaraz garatuko diren kultur proiektuei bultzada ematea du helburu.

Proposamenak aurkezteko **2 hilabeteko epea** izango dute gazteek, eta **urriaren 21etik abenduaren 21era** bitartean egongo da zabalik epe hori. Edozein ideiak balio du, euskaraz garatzekoa bada, eta kulturarekin zerikusia badu: **liburu edo diska bat argitaratu, jaialdi bat antolatu, APP bat sortu, bideo-jolas bat garatu, euskarazko lelodun kamisetak egin...** gazteen irudimenak eta sormenak askotarako eman dezake!

Jasotako proposamenen artean **epaimahaiak 3 proiektu aukeratuko ditu**, eta gazte horiei **crowdfunding egitasmo bat eta bere komunikazioa antolatzen lagunduko** diete. Behin crowdfunding egitasmoa martxan izanik, antolatzaileek **2.000 €-ko ekarpena** egingo diete 3 proposamen irabazleei.

Batera deialdiak **Laboral Kutxaren** eta **Vital Fundazioaren** babesia izango du. Horrez gain, **Gauekoak** aisialdi programarekin eta Itsulapikoa.eus plataformarekin elkarlanean antolatuko da.

Proposamenak aurkezteko garatu nahi den proiektuaren laburpena oihaneder@oihaneder.eus helbidera bidali beharko dute interesdunek, oinarrietan azaldutako irizpideak jarraituz.

* Info +: [Oinarriak](#)

** **Elkarrizketak:** Uxue Ruiz de Arkaute, 615 986 832

Abierta la cuarta edición de la convocatoria *Batera* para desarrollar proyectos culturales

Oihaneder Euskararen Etxea ha puesto en marcha la cuarta edición de la convocatoria de subvenciones *Batera* para desarrollar proyectos culturales. El objetivo de esta convocatoria es promover entre los y las jóvenes proyectos culturales que se desarrollen en euskera. Los organizadores, además de colaborar en la puesta en marcha de un proyecto de crowdfunding, aportarán 2.000 € a cada uno de los 3 proyectos seleccionados en la convocatoria. La convocatoria *Batera* contará con el patrocinio de *Laboral Kutxa* y la *Fundación Vital*. Asimismo, se organizará en colaboración con el programa de ocio alternativo Gauekoak y la plataforma *Itsulapikoa.eus*. El plazo de presentación de propuestas estará abierto del 21 de octubre al 21 de diciembre.

(VITORIA-GASTEIZ, 21-10-2021) Oihaneder Euskararen Etxea ha puesto en marcha por cuarto año consecutivo *Batera, kultura proiektuak elkarrekin*, convocatoria de ayudas para desarrollar proyectos culturales. *Batera* está dirigido a todos los y las jóvenes euskaldunes de entre 16 y 30 años de Euskal Herria. El objetivo de esta convocatoria es fomentar entre los y las jóvenes proyectos culturales que se desarrollen en euskera.

El plazo para presentar las propuestas es de dos meses, **abierto del 21 de octubre al 21 de diciembre**. Se podrá presentar cualquier idea con las condición de que se desarrolle en euskera y tenga relación con la cultura: publicación de un disco o un libro, organización de un festival, creación de una APP, desarrollo de un vídeo-juego, creación de camisetas con lemas en euskera.... ¡la imaginación y creatividad de los y las jóvenes da para mucho!

Entre las propuestas recibidas el jurado elegirá 3 proyectos. Las propuestas ganadoras recibirán **ayuda para organizar y desarrollar comunicativamente una campaña de Crowdfunding**. Una vez en marcha la campaña de Crowdfunding los organizadores harán un **aportación de 2.000€** a las campañas de los tres proyectos ganadores.

La convocatoria *Batera* contará con el apoyo de **Laboral Kutxa** y la **Fundación Vital**. Además, se organizará en colaboración con el programa de ocio alternativo **Gauekoak** y la plataforma **Itsulapikoa.eus**.

Los/as interesados/as en participar en la convocatoria deberán enviar un resumen de su proyecto a la dirección oihaneder@oihaneder.eus, según las bases de la convocatoria.

* **Info +:** [Bases](#)

** **Entrevistas:** Uxue Ruiz de Arkaute, 615 986 832